

2023

KUDEAKETA TXOSTENA INFORME DE GESTIÓN



ERRENTERIA
UDALA

AURKIBIDEA

ÍNDICE

ANTOLAKETA	4
ARTXIBO ETA ARGITALPENAK ARCHIVO Y PUBLICACIONES	6
DIRUZAINTEA TESORERÍA	8
GIZA BALIABIDEAK RECURSOS HUMANOS	10
INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIO TEKNOLOGIAK (IKT) TECNOLOGÍAS DE LA INFORMACIÓN Y LA COMUNICACIÓN (TIC)	12
INFORMAZIOAREN GIZARTEA SOCIEDAD DE LA INFORMACIÓN	14
KONTUHARTZAILETZA INTERVENCIÓN	16
KONTRATAZIOA ETA ONDAREA CONTRATACIÓN Y PATRIMONIO	18
IDAZKARITZA OROKORRA SECRETARÍA GENERAL	20
HERRITARRAK	22
BERDINTASUNA IGUALDAD	24
BIBLIOTEKA BIBLIOTECA	26
GAZTERIA JUVENTUD	28
GIZARTE ZERBITZUAK SERVICIOS SOCIALES	30
HEZKUNTZA EDUCACIÓN	32
KIROLAK DEPORTES	34
KULTUR ANIZTASUNA, GARAPENERAKO LANKIDETZA ETA GIZA ESKUBIDEAK DIVERSIDAD CULTURAL, COLABORACIÓN PARA EL DESARROLLO Y DERECHOS HUMANOS	36
KULTURA CULTURA	38
UDAL HIZKUNTZA POLITIKA POLÍTICA LINGÜÍSTICA MUNICIPAL	40
UDALTZAINGOA POLICÍA MUNICIPAL	42
LURRALDEA	44
HIRIGINTZA URBANISMO	46
INGURUMENA ETA IRAUNKORTASUNA MEDIO AMBIENTE Y SOSTENIBILIDAD	48
HIRI MANTENIMENDUA MANTENIMIENTO URBANO	50



A

ANTOLAKETA

ORGANIZACIÓN

AGIRITEGI ETA ARGITALPENAK

ARCHIVO Y PUBLICACIONES

A.1

1.

NOLA GAUZATU ZUEN DEPARTAMENTUAK 2023KO PLANGINTZA

Agiritegi eta Argitalpenak Departamentuaren 2023ko plangintza ia programatu bezala bete zen: proiektuen helburuak %85an eta ohiko zerbitzuenak %100ean.

14 ziren guztira sailak programatutako proiektuak. Horietako 10 planifikatu bezala gauzatu ziren %100ean: Memoria historikoa lantzea, Aizpitarte kobazuloak balioan jartzea, Koldo Mitxelena Ikerketa Beka (KMIB) gauzatzea, Bilduma aldizkarian KMIBren lana jasotzea, Oarso aldizkaria herritarrekin batera plazaratzea, Erdi Aroko agiriak transkribatzea, Digitalizatutako funtsa handitzea, Udal akten hustuketa, Bisita gidatuen kudeaketa eta Erreenteria Garatuz funtsa inbentariatzeko aholkularitza lanak.

Artxibo elektronikoa ezartzeko proiektua Udalaz kanpoko faktoreengatik atzeratu baina %75 gauzatu ahal izan zen.

Agiritegi eta Argitalpenak sailaren web propioa garatzea eta Herriko emakumeen ekarpenak sakontzeko proiektuen kasuan, %50ean bete ziren soikik, aurrera egin ahala birplanteatu behar izanagatik.

Manchester txikia obraren II liburukia argitaratzeko proiektua, ordez, bertan behera gelditu zen kanpo eragozpenak zirela-eta.

¿CÓMO IMPLEMENTÓ EL DEPARTAMENTO LA PLANIFICACIÓN DE 2023?


La planificación de 2023 del Departamento de Archivo y Publicaciones se cumplió casi de forma programada: los objetivos de proyectos en un 85% y de servicios habituales en un 100%.

De 14 proyectos programados, 10 se llevaron a cabo al 100%: progresar en memoria histórica, poner en valor las cuevas de Aizpitarte, ejecutar la Beca de Investigación Koldo Mitxelena, incluir el trabajo de la beca en la revista Bilduma, publicar la revista Oarso con la ciudadanía, transcribir documentos medievales, ampliar el fondo digitalizado, describir actas municipales, gestionar visitas guiadas y asesorar en la gestión del fondo documental de Erreenteria Garatuz.

El proyecto de implantación del Archivo Electrónico se retrasó por factores externos pero se cumplió en un 75%.

En el caso de los proyectos de desarrollo de la web del Departamento y de profundización en las aportaciones de las mujeres al municipio, se cumplieron en un 50% por tener que replantearse a medida que avanzaban.

El proyecto para editar el tomo II de la obra Manchester Txikia quedó anulado por impedimentos ajenos al Ayuntamiento.



2.

NOLAKOA DA PLANIFIKATUTAKO ETA OHIKO JARDUERAREN BALORAZIOA?

Ohiko zerbitzuen nahiz planifikatutako projektuen jardueren balorazio orokorra positiboa da. Aurrez ondo planifikatutako kronogramari esker, helburuen betetze-maila handia izan zen. Planifikazioaren hiru hilabeteroko baloraziorako ezarritako semaforo sistemak ere eragin positiboa izan zuen projektuen garapenean. Horri esker atzerapenen arrazoia azaleratu zen eta birmoldatu edota bertan behera uzteko aukera eman zuen.

Hori dela eta, bi faktore hartu dira kontuan plangintza hobetzeko. Alde batetik, hainbat eragileren partaidetzarekin gauzatzen diren projektuetan gerta daitezkeen atzerapenak saihesteko, bakoitzaren zereginen arteko eragina berrikusiz. Bestalde, lan-karga txikiagoko denborak identifikatu dira, sor daitezkeen ustekabeko projektuei aurre egiteko.

Hirugarren faktore bat, ordea, ezin da aurreikusi. Egonkortze-prozesuek Artxiboko plantillaren % 75i eragin diezaiokete.

3.

PLANGINTZATIK KANPO SORTU ZIREN PROIEKTUAK NOLA GAUZATU ZIREN?

Planifikatu gabeko projektuei dagokienez, Artxibo eta Argitalpen Departamentuak aurreikusi gabeko bi ekintza egin zituen 2023. urtean, eta horien berri eman zen dagozkien kudeaketa-txostenetan:

- Larzabalgo gordailuan izandako uholdeak 155 artxibo-kaxatan izan zuen eragina. Lehortzeko, berrantolatzeko eta abarrerako lanek bi hilabete iraun zuten. Horrez gain, hainbat sailei egindako eskaeren kudeaketa egin zen garbiketa eta konponketa lanak egin zitzaten.
- "Alegoria" obraren 50. urteurrena izango zela eta, artxiboari egokituz zitzaison Valeriano Lecetaren Udalbatzarreko horma-irudia zaharberritzea. Gipuzkoako Foru Aldundiarekin egiaztago zen neurri berezirik ez zela hartz behar, zaharberritzea kontratatu zen, aretoko agenda egokituz, jarraipena egin zen eta emaitzaren berri eman zen hedabideetan.

¿CÓMO SE VALORAN LAS ACTIVIDADES HABITUALES Y LAS PLANIFICADAS?

La valoración global de servicios habituales y de actividades de proyectos planificados es positiva. Un cronograma equilibrado permitió un alto grado de cumplimiento de los objetivos. El sistema semafórico establecido para la valoración trimestral también influyó positivamente en el desarrollo de los proyectos. Esto permitió aflorar la causa de los retrasos y permitir su remodelación o cancelación.

Por ello, se han tenido en cuenta dos factores para la mejora de la planificación. Por un lado, para evitar retrasos en los proyectos que se llevan a cabo con la participación de diferentes agentes, revisando la influencia entre las tareas de cada uno. Por otro lado, se han identificado tiempos de menor carga de trabajo para hacer frente a posibles proyectos imprevistos.

Un tercer factor no es previsible. Los procesos de estabilización pueden afectar al 75% de la plantilla del Archivo.

¿CÓMO SE VALORAN LAS ACTIVIDADES NO PLANIFICADAS LLEVADAS A CABO?

Respecto a los proyectos fuera de planificación, el Departamento de Archivo y Publicaciones desarrolló a lo largo del año 2023 dos tareas no previstas, de las que se informó en los correspondientes informes de gestión:

- La inundación del depósito de Larzabal afectó a 155 cajas de archivo. Los trabajos de secado, reorganización, etc. duraron dos meses. Además, se gestionaron los pedidos realizados a los distintos departamentos para que realizaran las labores de limpieza y reparación.
- Con motivo del 50 aniversario de la obra "Alegoria", correspondió al Archivo la restauración del mural del Pleno de Valeriano Leceta. Se comprobó con la Diputación Foral de Gipuzkoa que no había que tomar medidas especiales, se contrató la restauración, se adaptó la agenda de la sala, se hizo un seguimiento y se comunicó el resultado en los medios de comunicación.

1.

NOLA GAUZATU ZUEN DEPARTAMENTUAK 2023KO PLANGINTZA?

Sailaren helburu nagusia da zergak, tasak eta prezio publikoak biltzea, isunak biltzea eta ordainketak atzeratzea, zatikatzea eta konpentsatzea. Horretarako, urtero onartzenda egutegifiskala, diruzaintzako fluxuak ahalik eta denbora homogeneotasun handienarekin orekatzeko eta borondatezko aldiko diru-bilketan sailaren plangintza egiteko tresna gisa erabiltzeko.

Gainera, diru-sarreren politika orokorrak etengabe azterzen dira, eta zergen arloko legeria proposatu eta interpretatzen da. Oro har, bi aldaketa egiten dira urtero ordenantza fiskaletan.

Agintaldi planeko proiectuetako bat udal zerbitzuak norbere gaitasun ekonomikoaren arabera ordaintzea zen. KAM enpresarekin elkarlanean aplikazio informatiko bat garatu zen progresibilitatearen aplikazio eskaera guztien kontrol eta kudeaketa zentralizatua bermatu ahal izateko.

Progresibilitatea lehenengo aldiz 2022-2023 ikasturte logika duten hainbat udal zerbitzuetan aplikatu zen eta ondoren, urtean zehar, 2023-2024 ikasturterako beste hainbat zerbitzuetara gehitu zen.

¿CÓMO IMPLEMENTÓ EL DEPARTAMENTO LA PLANIFICACIÓN DE 2023?

El objetivo principal del departamento es la recaudación de los impuestos, tasas y precios públicos, recaudación de multas y aplazamiento, fraccionamiento y compensación de pagos. Para ello anualmente se aprueba el calendario fiscal, que tiene por objeto equilibrar los flujos de tesorería al máximo de homogeneidad temporal posible y sirve de instrumento planificador al departamento en la recaudación del periodo voluntario.

Se lleva a cabo un análisis continuo de las políticas generales de ingresos. Con carácter general, se llevan a cabo dos modificaciones de ordenanzas fiscales anualmente.

Uno de los proyectos del plan de mandato era sufragar los servicios municipales en función de la capacidad económica de cada cual. En colaboración con la empresa KAM se desarrolló una aplicación informática para garantizar el control y gestión centralizada de todas las solicitudes de aplicación de progresividad.

La progresividad se aplicó por primera vez en el curso 2022-2023 en diversos servicios municipales y posteriormente, a lo largo del año, se incorporó a otros para el curso 2023-2024.

2.

NOLAKOA DA PLANIFIKATUTAKO ETA OHIKO JARDUERAREN BALORAZIOA?

Dirubilketari dagokionez, aurten ere, urtero bezala, aldez aurretik onartutako eguteki fiskala bete da. Urtean zehar exekutibako karguak gelditu behar izan ziren hauek kudeatzeko zegoen baliabide faltarengatik, baina azkenean hauek ere atera ziren.

Bestalde, udal zerbitzuetan egindako progresibilitatea aplikatzeko eskaeren ebazena atzeratu egin zen. Aipatutako aplikazioaren garapena luzatu egin zen eta ondorioz, zerbitzuen ebazena eta kobraketa ere nahi baino beranduago egin zen.

Ordenantza fiskalen urteroko bi aldaketak egin diren arren hauek eguneratzeko, urteko plangintzan sartua genuen ordenantzen errepaso orokor bat egitea eta baliabide faltak direla eta ezin izan da egin.

¿CÓMO SE VALORAN LAS ACTIVIDADES HABITUALES Y LAS PLANIFICADAS?

En cuanto a la recaudación, un año más, como todos los años, se ha cumplido con el calendario fiscal previamente aprobado. Durante el año hubo que parar los cargos de ejecutiva por la falta de medios para gestionarlos, pero finalmente también se llevaron a cabo.

Por otra parte, se retrasó la resolución de las solicitudes para aplicar la progresividad en los servicios municipales. El desarrollo de la citada aplicación se prolongó, por lo que la resolución y cobro de los servicios también se realizó con posterioridad.

A pesar de que se han realizado las dos modificaciones anuales de las ordenanzas fiscales para actualizarlas, no se ha podido hacer el repaso general de las ordenanzas que habíamos previsto.

3.

PLANGINTZATIK KANPO SORTU ZIREN PROIEKTUAK NOLA GAUZATU ZIREN?

Kontuhartzaitzako txostenean aipatzen den bezala, aurreikusi gabeko proiektu esanguratsuena Erreenteria Musical udal erakunde autonomoaren kontabilitatea Udalak bere gain hartza izan da.

¿CÓMO SE VALORAN LAS ACTIVIDADES NO PLANIFICADAS LLEVADAS A CABO?

Tal y como se menciona en el informe de intervención, el proyecto más significativo no previsto ha sido la asunción por parte del Ayuntamiento de la contabilidad del organismo autónomo municipal Erreenteria Musical.

ZU!						
ORDAINAKETA ESKAERAK						
Kontrola	Denboraldi	ZINTELEKU	IZKARREKO TARTUNE PROIEKTUAK	ZINU EGUNTAZKO PROIEKTUAK	NETOIA PENTSAIA	NETO IRRAIA
Otsail	ZINTELEKU	IZKARREKO TARTUNE PROIEKTUAK	ZINU EGUNTAZKO PROIEKTUAK	NETOIA PENTSAIA	NETO IRRAIA	KAPURUA
2023-2024 lurdokalek - Urtarrileko izen-emateak	Lurdokale	Bezi			2024-01-30 - 12:13	2023-2024
Familia Gunes 2023/2024 urteko	Familia Gunes	Bezi			2024-01-09 - 13:03	2023-2024
Familia Gunes 2023/2024 iraila	Familia Gunes	Bezi			2024-01-09 - 11:09	2023-2024
EUSKALTEGIA	Udal/Euskaratzea	Bezi			2024-01-16 - 16:00	2023-2024
EUSKALTEGIA		Bezi			2024-01-16 - 13:21	2023-2024
Euskaltegia 2023-2024 urtekoak 10	Udal/Euskaratzea	Bezi			2024-01-15 - 11:35	2023-2024
Lurdokalek 2023-2024	Lurdokale	Bezi			2024-01-03 - 09:23	2023-2024
Lurdokalek 2023-2024	Lurdokale	Bezi			2024-01-03 - 09:02	2023-2024
Familia Gunes 2023/2024	Familia Gunes	Bezi			2024-01-02 - 11:00	2023-2024
Familia Gunes 2023/2024	Familia Gunes	Bezi			2024-01-02 - 11:29	2023-2024

1.

NOLA GAUZATU ZUEN DEPARTAMENTUAK 2023KO PLANGINTZA?

2023.ekitaldirako plangintza aurreikusi bezala gauzatu da Giza Baliabidetan zein Lan Arriskuen Prebentzio Zerbitzuan.

Garatu diren lan nagusienak hurrengoak izan dira: antolaketa hobetzeko udal osoko organigrama eta eskumenak berrikustea, berdintasun plana egiteko diagnostikoa abiaratzea, udaleko aldiberetasun tasa jeisteko estabilizazio lan eskaintza publikoko hautaketa prozesuen garapenari ekitea eta urte anitzetarako lan eskaintza publikoa osatzea, departamentu buruei zuzendutako plangintza eta denboraren kudeaketari buruzko formazioa garatzea, lan hitzarmen berria adostu eta onartzea, enplegu plan zabala martxan jartzea, eta arrisku psicosozialen eremuan plangintza egiteko diagnostikoa burutzea.

Aurrekoaz gain, erantzuna eman zaie udalak egunerokoan izan dituen giza baliabideen beharrei: ordezkapenak, baimenak, nomina, azterketa medikuak; kontuan hartuta 2023. urtean udaleko plantilla 351 lanpostuetakoa izan dela, baina langileak orotara 400tik gora izan direla hainbat momentuetan.

¿CÓMO IMPLEMENTÓ EL DEPARTAMENTO LA PLANIFICACIÓN DE 2023?

La planificación del ejercicio 2023 se ha materializado de la forma prevista, tanto en Recursos Humanos como en el Servicio de Prevención de Riesgos Laborales.

Los principales trabajos desarrollados han consistido en la revisión del organigrama y competencias de todo el Ayuntamiento, la puesta en marcha del diagnóstico para la elaboración del plan de igualdad, el inicio del desarrollo de los procesos selectivos de la OEP de estabilización y la elaboración de la OEP plurianual para reducir la tasa de interinidad municipal, el desarrollo de la formación en planificación y gestión del tiempo, el nuevo convenio laboral, puesta en marcha de un amplio plan de empleo y el diagnóstico de riesgos psicosociales.

Además de lo anterior, se ha dado respuesta a las necesidades de recursos humanos del Ayuntamiento en el día a día: sustituciones, permisos, nómina, revisiones médica; y teniendo en cuenta que en el año 2023 en la plantilla municipal había 351 plazas, aunque el personal ha llegado a superar 400 empleados/as en diferentes momentos.

2.**NOLAKOA DA PLANIFIKATUTAKO ETA OHIKO JARDUERAREN BALORAZIOA?**

Egin den balorazioa positiboa izan da. Plangintzaren arabera gauzatu da jarduera eta aurreikusitako helburu eta proiektu nagusienak bete dira.

Badira arrazoi ezberdinengatik atzeratuta gelditu diren lan batzuk, aurreikusitako epeetan garatu ezin izan direnak: telelana egiteko protokoloa, lan poltsak kudeatzeko protokoloa, gaitasun digitalen azterketa edo Lekuonako berrantolaketa esaterako, 2024. urtean lantzeko gelditu direnak.


Giza Baliabideen eta Prebentzio Zerbitzuaren eguneroko kudeaketak lan bolumen handia izan du, eta ohikoa den moduan aurreikusita ez zeuden hainbat gaiei ere erantzun behar izan zaie.

¿CÓMO SE VALORAN LAS ACTIVIDADES HABITUALES Y LAS PLANIFICADAS?

La valoración realizada ha sido positiva. La actuaciones se han llevado a cabo de acuerdo con la planificación y se han cumplido los principales objetivos y proyectos previstos.

Hay trabajos que han quedado aplazados por diferentes motivos y que no se han podido desarrollar en los plazos previstos: protocolo de teletrabajo, protocolo de gestión de bolsas de trabajo, estudio de competencias digitales o reorganización de Lekuona, que han quedado pendientes de trabajar en 2024.

La gestión diaria de Recursos Humanos y el Servicio de Prevención ha tenido un volumen de trabajo importante que ha obligado a atender cuestiones que, como es habitual, no se encontraban previstas.

**3.****PLANGINTZATIK KANPO SORTU ZIREN PROIEKTUAK NOLA GAUZATU ZIREN?**

Garatudiren proiektuak nagusiki plangintzan jasotakoak izan baldin badira ere, batzuetan aurreikusitakoa baino zabalera edo konplexutasun handiagoa izan dute.

Eguneroako kudeaketan sortu dira aurreikusiak ez zeuden lan gehienak.

Aurrekoek plangintza egokitua eta lehentasunak aldatu behar izatea ekarri du, eta lan taldearen erantzuna oso ona izan da.

¿CÓMO SE VALORAN LAS ACTIVIDADES NO PLANIFICADAS LLEVADAS A CABO?

Si bien los proyectos desarrollados han sido los recogidos principalmente en la planificación, en ocasiones han tenido una amplitud o complejidad superior a la prevista.

En la gestión diaria han surgido la mayoría de trabajos que no estaban previstos.

Los anteriores han supuesto un ajuste de la planificación y un cambio de prioridades, y la respuesta del equipo de trabajo ha sido muy buena.

INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIO TEKNOLOGIAK (IKT) TECNOLOGÍAS DE LA INFORMACIÓN Y LA COMUNICACIÓN (TIC)

A.4

1.

NOLA GAUZATU ZUEN DEPARTAMENTUAK 2023KO PLANGINTZA?

2023an, IKT sailak beharrezko azpiegiturak, programak eta tresnak eman zituen udal langileek eguneroko lana egin ahal izateko, eta sortutako gorabeherei erantzun zien. Posta elektroniko korporatiboa kudeatzeko sistema aldatu zen, programa pribatibo batetik software libreko batera pasatuz.

Azpiegiturei dagokienez, Niessen eta Lekuona eraikinetako rack-ak berritu ziren, udal-zuntz optikoaren sarea handitu zen eta Wifi sarbide-gune berriak jarri ziren udal-eraikinetan eta plazetan. Era berean, beharrezko ekipamendua instalatu zen Joxepa Antoni Aranberri eraikin berrian, eta 2024an Aldakonean instalatuko dena erosi zen.

Zenbait proiekturen kudeaketa errazteko neurri egindako programa informatikoak garatu ziren.

Segurtasun Batzordearen bidez, Segurtasun Eskema Nazionala betetzeko lan egin zen.

IKT sailaren plangintza bete zen, baina zenbait proiektuk atzerapenak izan zituzten denbora faltagatik.

¿CÓMO IMPLEMENTÓ EL DEPARTAMENTO LA PLANIFICACIÓN DE 2023?

En el año 2023 el departamento TIC proporcionó las infraestructuras, programas y herramientas necesarias para que el personal municipal pudiera desarrollar su labor diaria y atendió las incidencias surgidas. Se cambió el sistema de gestión del correo electrónico corporativo, pasando de un programa privativo a uno de software libre.

En cuanto a infraestructuras, se renovaron los Racks de los edificios Niessen y Lekuona, se amplió la red de fibra óptica municipal y se instalaron nuevos puntos de acceso Wifi en edificios municipales y plazas. Así mismo, se instaló el equipamiento necesario en el nuevo edificio Joxepa Antoni Aranberri y se adquirió el que se instalará en Aldakonea en 2024.

Se desarrollaron programas informáticos a medida para facilitar la gestión de algunos proyectos.

Mediante el Comité de Seguridad se trabajó en el cumplimiento del Esquema Nacional de Seguridad.

Se cumplió con la planificación del departamento, aunque algunos proyectos sufrieron retrasos por falta de tiempo.



2.**NOLAKOA DA PLANIFIKATUTAKO ETA OHIKO JARDUERAREN BALORAZIOA?**

Sailaren ohiko zerbitzuan dagokionez, udal erabiltzaileek egindako eskaera eta gorabeheretan erantzun zitzaien, eta erantzuteko denbora ona izan zen. Gorabeherak kudeatzeko software espezifikoaren erabilera zentralizatua hobetu zen, horrek sailaren lana ordenatzeko eta kuantifikatzeko aukera eman zuen.

2023an, hainbat sailen artean burututako proiektuen plangintza hobetzeko lan egin zen, bai eta IKT sailak laguntza ematen dien proiektuen plangintza hobetzeko ere. Oro har, plangintza hobetu zen, baina proiektu batzuetan ez zen planifikatutakoa bete eta atzeratu egin ziren.

Orokorrean, proiektuak programatu bezala gauzatu ziren. Proietu horiei esker, udalak azpiegitura informatiko sendoagoa eta seguruagoa lortu zuen, eta hirugarrenkiko mendekotasun txikiagoa.

**¿CÓMO SE VALORAN LAS ACTIVIDADES HABITUALES Y LAS PLANIFICADAS?**

En cuanto al servicio habitual del departamento, se dio respuesta a las peticiones e incidencias realizadas por los usuarios/as municipales, siendo el tiempo de respuesta bueno. Se mejoró en el uso centralizado del software específico de gestión de incidencias que permitió ordenar el trabajo del departamento y cuantificarlo.

Durante 2023 se trabajó en la mejora de la planificación de proyectos entre diferentes departamentos y en la mejora de la planificación de los proyectos en los que el departamento TIC da soporte. Mejoró la planificación en general, aunque en algunos proyectos no se cumplió lo planificado y se retrasaron.

Con carácter general, los proyectos se ejecutaron tal y como se habían programado. Gracias a estos proyectos el ayuntamiento consiguió una infraestructura informática más sólida y segura, y una menor dependencia de terceros.

3.**PLANGINTZATIK KANPO SORTU ZIREN PROIEKTUAK NOLA GAUZATU ZIREN?**

2022ko datuekin alderatuta, 2023an planifikatu gabeko proiektuek nabarmen egin zuten behera. Aldiz, beste sail batzuetako proiektuetatik sortutako zereginak ugariak izan ziren eta asko luzatu ziren denboran zehar. Gainera, zeregin horiek ustekabeen eta premiaz iritsi zirenez, IKT sailaren berezko zereginak eta proiektuak berriro planifikatzea eskatu zuten, zegozkion atzerapenekin. Alderdi hori hobetzeko, beharrezko da beste sailek IKT saila kontuan izatea proiektuak hasten direnetik, eta beharrezkoak diren zereginak eta ekintzak elkarrekin planifikatzea.

¿CÓMO SE VALORAN LAS ACTIVIDADES NO PLANIFICADAS LLEVADAS A CABO?

En comparación con el año 2022, en 2023 los proyectos no planificados disminuyeron considerablemente. En cambio, las tareas surgidas de proyectos propios de otros departamentos fueron numerosas y se alargaron mucho en el tiempo. Además, estas tareas llegaron de forma inesperada y con urgencia, por lo que exigieron volver a planificar las tareas y proyectos propios del departamento TIC, con los retrasos correspondientes. Para mejorar este aspecto, es necesario que otros departamentos cuenten con el departamento TIC desde el inicio de los proyectos y que se planifiquen las tareas y acciones necesarias de forma conjunta.

SOCIEDAD DE LA INFORMACIÓN **INFORMAZIOAREN GIZARTEA**

A.5

1.

NOLA GAUZATU ZUEN DEPARTAMENTUAK

2023KO PLANGINTZA?

GOBERNU ONA: Agintaldi planean jasota zegoen udal administrazio elektronikoaren implantazioarekin jardun du batipat. Oro har programatuta bezala bete da. Bukatzeak geratu da udal administrazio elektronikoaren ordenantzaren onesprena.

ZU! ARRETA ZERBITZUA: Beraun auzoan Arreta Zerbitzu berri bat irekitzeko behar den antolakuntzan jarri dira indarrak, zehazkiago, informazioaren eguneraketan eta lankideen formazioan. Horretarako udaleko eta Beraungo zerbitzuak berrantolatu dira. Zerbitzuaren irekiera atzeratu egin da eta 2024rako aurreikusten da.

KOMUNIKAZIOA: Agintaldi aldaketak eta Agintaldirako Plan berriak beharrezkoak zituzten komunikazio ekintzak toki berezia hartzutzen 2023ko plangintzan; horiek espero moduan eraman ziren aurrera eta urtearen bigarren partean gauzatu ziren.

PARTES HARTZEA: Espero moduan joan zen urtea, nahiz eta aldaketa nabarmena egon zen agintaldi aldaketarekin; zerbitzu honen ardura politikoa alkatzetzak berak hartz zuelako. Plangintzako jarduerak, modu egokian eta ezusterik gabe joan ziren.

¿CÓMO IMPLEMENTÓ EL DEPARTAMENTO LA PLANIFICACIÓN DE 2023?

BUEN GOBIERNO: Fundamentalmente se ha dedicado a llevar a cabo la implantación de la administración electrónica en el ayuntamiento, proyecto contemplado en el Plan de Mandato. En general se ha cumplido lo programado. Queda por aprobar la ordenanza municipal de administración electrónica.

SERVICIO DE ATENCIÓN ZU!: Los esfuerzos se han centrado en la gestión para la apertura de un nuevo Servicio de Atención en el barrio de Beraun. Para ello se han reorganizado los dos servicios, el del ayuntamiento y el de Beraun, actualizado la información y formado al personal. La apertura del servicio se ha retrasado y se prevé para 2024.

COMUNICACIÓN: El cambio de mandato y la difusión del nuevo Plan de Mandato tuvieron un lugar destacado en la planificación de 2023. Estas se ejecutaron de la forma sperada y dentro del segundo semestre.

PARTICIPACIÓN: El año transcurrió según lo planificado, pero hubo un cambio sustancial tres el cambio de mandato; porque la responsabilidad política de este servicio recayó en la propia alcaldía. Las actividades planificadas transcurrieron de la forma esperada.



2.

NOLAKOA DA PLANIFIKATUTAKO ETA OHIKO JARDUERAREN BALORAZIOA?

GO: Urteko plangintza bete da oro har; urtean zehar egokitzapenak egin dira, sortu diren lan berriak txertatu eta aurrekuskaitako beste batzuk atzeratuz. Aurten langilego aldaketa asko egon da horrek dakinaren barne antolaketa ondorioekin.

ZU: Urteko udal kanpainen plangintza eta eguneroko lana ondo burtu da. Lanpostuen egonkortze prozesuak langileen aldaketa asko ekarri ditu eta ondorioz zaitasunak egon dira zenbait proiektu aurrera eramateko. Giza baliabideen kontingentzia plan bat beharrezkoa da.

KO: Lana modu egokian egin da, eta oro har balorazio ona egin daiteke, baina lan kargak ez du ahalbidetu pendiente jarraitzen duten baina berehalako presarik ez duten garrantzizko gai batzuk jorratzea (Gardentasun ataria...)

PH: Zerbitzuaren parte honen balorazioa egokia da, eta ohikoa bilakatzen ari da beste departamentuekiko lankidetza.



3.

PLANGINTZATIK KANPO SORTU ZIREN PROIEKTUAK NOLA GAUZATU ZIREN?

GO: Departamentuekin bilerak egin dira, administrazio elektronikoaren ekimenez, administrazio elektronikoari buruz departamentuen egoera eta irizpena ezagutzeko. Ikerketa oso baliagarria izan da, espediente elektronikoen eta udal funtzionamenduan beharrak ikusi eta hobetzeko neurriak hartzeko.

ZU: Plangintzan aurreikusi gabeko proiektuak egin dira: Hauteskunde Orokorrak, jendaurrean eta oholtzan dokumentuak zintzilikatzeko prozeduraren aldaketa eta agenteak ordezkatzen kontingentzia planaren proposamena. Kontingentzia plana izan ezik gainontzekoa espero bezala joan da.

KO: Ustekabeko proiekturik ez du izan, hala ere, egin dira beste departamentuen proiektuetan komunikazio ekintzak, esaterako, agenden ezartze zentralizatua.

PH: Agintaldi Planak 2023. urtean Musikaren eta Ahotsaren Etxearren ekipamenduaren definitzeko proiektua ekarri du. Proiektua 2024an, bukatzean, baloratuko da.

¿CÓMO SE VALORAN LAS ACTIVIDADES HABITUALES Y LAS PLANIFICADAS?

BG: Se ha cumplido mayormente con la planificación; se han llevado a cabo trabajos que no se habían contemplado y se ha pospuesto algún otro. Este año se ha producido mucho cambio de personal municipal, con las consecuencias en la organización que ello conlleva.

ZU: La planificación de las campañas anuales y el trabajo diario se ha llevado a cabo con éxito. El proceso de estabilización de puestos de trabajo ha supuesto cambios de personal y por tanto ha habido dificultades para llevar a cabo algunos proyectos. Es necesario un plan de contingencia de recursos humanos.

CO: El trabajo se ha realizado de forma adecuada y se puede hacer una buena valoración, pero la carga de trabajo no ha permitido abordar algunos temas importantes pero que no son tan urgentes (Portal de transparencia...).

PA: El servicio se valora bien y está consiguiendo la colaboración habitual con los departamentos.

¿CÓMO SE VALORAN LAS ACTIVIDADES NO PLANIFICADAS LLEVADAS A CABO?

BG: A iniciativa del grupo de trabajo de administración electrónica se han realizado reuniones con los departamentos para conocer la situación y la opinión de los departamentos sobre la administración electrónica. Lo obtenido ha sido valioso para conocer las necesidades de gestión de los expedientes electrónicos, el funcionamiento administrativo, y adoptar mejoras.

ZU: Los proyectos no previstos han sido: Elecciones Generales, modificación del procedimiento de los documentos en exposición pública y propuesta de plan de contingencia para la sustitución de agentes. Salvo ese plan el resto ha ido según lo previsto.

CO: No han surgido proyectos propios, pero ha habido acciones de comunicación de otros departamentos, como la implantación centralizada de agendas.

PA: El Plan de Mandato trajo el proyecto de definición de Musikaren eta Ahotsaren etxea en 2023, que se valorará al finalizar.

1.

NOLA GAUZATU ZUEN DEPARTAMENTUAK 2023KO PLANGINTZA?

Departamentuaren plangintzan ohiko jarduerak aurreikusiak zeuden: aurrekontuaren zikloarekin lotuak, alde batetik, eta finantza kontrolari zegozkionak, bestetik.

Urtero legez, urtea aurreko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioarekin hasi genuen (legez martxoaren 31rako onartua egon behar zuena) eta hurrengo ekitaldiko aurrekontu proiektuarekin amaitu. Tartean, kreditu aldaketak bideratu eta udal jardueraren kontabilizazioaz arduratu ginen, kontabilitateak Udalaren egoera finantzarioaren eta aurrekontuaren exekuzioaren irudi leiala islatu dezan. Arlo honetan bi proiektu berri aurreikusi ziren: aurrekontuaren lanketan partehartzea nola gehitu eta genero ikuspuntua nola txertatu aztertu eta, ahal bazen, bi proiekturei lotutako lehen urratsak bideratu.


Bestalde, finantza-kontrolarekin lotuak, urteko finantza-kontrolerako plana onartu eta bertan jasotakoak zein 2022ko planetik pendiente zeuden jarduerak gauzatzea aurreikusi zen. Lehentasuna ez baten ere, arlo honetako espedienteen normalizazioa ere helburuetako bat zen.

¿CÓMO IMPLEMENTÓ EL DEPARTAMENTO LA PLANIFICACIÓN DE 2023?

La planificación del Departamento incluía actividades habituales: por un lado, las relacionadas con el ciclo presupuestario y, por otro, las relativas al control financiero.

Anualmente, iniciamos el ejercicio con la liquidación del presupuesto del ejercicio anterior (que debe aprobarse antes del 31 de marzo) y lo terminamos con el proyecto de presupuesto del ejercicio siguiente. Además, tramitamos las modificaciones de crédito y la contabilización de la actividad municipal, para que la contabilidad municipal refleje la imagen fiel de la situación financiera y de la ejecución presupuestaria municipales. En este ámbito se previeron dos nuevos proyectos: analizar y, en su caso, avanzar en la implementación de la participación y en la incorporación de la perspectiva de género en el diseño presupuestario.

En cuanto a las relacionadas con el control financiero, se preveía aprobar el plan anual de control financiero y ejecutar tanto las acciones previstas en el mismo, como las pendientes del 2022. Sin ser prioritario, se buscaba también la normalización de los expedientes de este ámbito.



2.**NOLAKOA DA PLANIFIKATUTAKO ETA OHIKO JARDUERAREN BALORAZIOA?**

Aurrekontuari dagokionez, 2023an martxoak 17an, inoiz baino goizago, onartu egin zen aurrekontuaren likidazioa. Kontu Orokorra ere, garaiz, legeak ezarritako epean aurkeztu zitzaien Udalbatzarrari (uztaila). Urtean zehar kreditu aldaketa gutxiago bideratu baziren ere, zeuden beharretarako finantzazio nahikoa bilatzea zaitasun nagusiena bilakatu zen, bereziki urtearen azken lauhilekoan. Udalbatzarrak 2024ko Aurrekontu Orokora abenduaren 5ean onartu zuen, urtarrilaren 8an indarrean jarriaz.

Aldiz, partehartza eta genero ikuspuntuari dagokionez, pausu batzuk eman baziren ere ez ziren helburuak bete.

Bestalde, 2023ko finantza-kontrolerako plana onartu eta partzialki gauzatu, eta 2022koaren zenbait ekintza gauzatu ziren, biak oraindik amaitzeke egonik. Azkenik, urtero bezala, barne kontrolerako laburpen txostenetan uztaileko saioan aurkeztu zitzaien Udalbatzarrari Kontu Orokorrarekin batera.

3.**PLANGINTZATIK KANPO SORTU ZIREN PROIEKTUAK NOLA GAUZATU ZIREN?**

Aurreikusi gabeko projektuen artean 2023ko esanguratsuena Erreenteria Musikal udal erakunde autonomoaren kontabilitatea Departamentuak bere gain hartu izana izan zen. Ekainean hartu zen erabakia eta ondotik faktura erlazioak onartzea, gastu- zein sarrera-eragiketen kontabilizazioa eta kreditu-aldaketa eta aurrekontu-likidazio expedienteak bideratzea Udalak egiten du, Diruzaintza eta Kontuhartzaitza Departamentuak elkarlanean. Diru-sarreren kudeaketarako beharrezko zen informazio traspasoan egon zen zaitasun handiena.

Hasierako plangintzan jasoa ez zegoen bertze proiektua Next Funtsen jarraipenari zegokion. 2022an zehar emandako lehen pausuei jarraitzeko zaitasunak egon ziren.

¿CÓMO SE VALORAN LAS ACTIVIDADES HABITUALES Y LAS PLANIFICADAS?

En 2023 se aprobó la liquidación presupuestaria antes que nunca, el 17 de marzo. La Cuenta General también se presentó a tiempo al Pleno, dentro del plazo establecido legalmente (julio). Aunque se tramitaron menos modificaciones de crédito, la principal dificultad consistió en buscar suficientes financiación para las necesidades existentes, sobre todo durante el último cuatrimestre. El Pleno aprobó inicialmente el presupuesto de 2024 el 5 de diciembre y entró en vigor el 8 de enero.

Sin embargo, en lo que respecta a la participación y la perspectiva de género, los objetivos no se cumplieron pese a darse algunos pasos.

Por otro lado, el plan de control financiero de 2023 se aprobó y ejecutó parcialmente, junto con algunas acciones del de 2022, todavía sin finalizar. Por último, el informe resumen de control financiero se llevó al Pleno en la sesión de julio, junto con la Cuenta General.

¿CÓMO SE VALORAN LAS ACTIVIDADES NO PLANIFICADAS LLEVADAS A CABO?

Entre los proyectos no previstos de 2023, el más significativo consistió en la asunción por parte del Departamento de la contabilidad del organismo autónomo municipal Erreenteria Musikal. La decisión fue tomada en junio y, desde entonces, la aprobación de las relaciones de facturas, la contabilización de las operaciones de gasto e ingreso, así como la tramitación de los expedientes de modificación de créditos y la liquidación presupuestaria se realizaron desde el Ayuntamiento, por los Departamentos de Tesorería e Intervención en colaboración.

Otro de los proyectos no previstos en la planificación inicial correspondió con el seguimiento de los Fondos Next. Resultó difícil dar continuidad a los primeros pasos dados en 2022.

KONTRATAZIO ETA ONDAREA

CONTRATACIÓN Y PATRIMONIO

A.7

1.

NOLA GAUZATU ZUEN DEPARTAMENTUAK 2023KO PLANGINTZA?

Kontratacio eta Ondare arloa beste batzuei zerbitzua ematen dien arloa da, udal-arlo guztiak datozentz moza guztiak kontratu pribatu eta publikoen litzazioak kudeatuz. Horregatik, planifikazioa beste arlo batzuetako plangintzen mende dago neurri handi batean. Hala ere, aurtengo proiektu handia izan da aldi baterako kontzesio demanialak eta aldi baterako erabilera-baimenak kudeatzea, 23. AREAko (VILLAS VIADUCTO) jabari publikoko eta udal-titularitasuneko garaje-aparkalekuko plazei dagokienez. Neurri handi batean ezarritako epeen arabera bete dira; hala ere, multzo horretako proiektu batean epeak aurreikustea zaila da. Kudeaketa hori guztia abenduan burutu zen, Udalbatzak onartu baitzuen Aparkalekuko Zerbitzu Publikoa emateko modua eta garaje plazak aldi baterako erabiltzeko baimena emateko baldintzen orriak.

¿CÓMO IMPLEMENTÓ EL DEPARTAMENTO LA PLANIFICACIÓN DE 2023?

El área de Contratación y Patrimonio es un área que da servicio a otras mediante la gestión de las licitaciones de todo tipo de contratos privados y públicos procedentes de todas las áreas municipales, es por ello, que la planificación depende en gran medida de las planificaciones de otras áreas. Sin embargo, el gran proyecto del presente año ha sido la gestión de las concesiones demaniales por tiempo determinado y autorizaciones temporales de uso respecto de las plazas de garaje-aparcamiento de dominio público y titularidad municipal, ubicados en el AREA 23: VILLAS VIADUCTO. Las mismas, se han cumplido en gran medida en base a los plazos establecidos, sin bien, en un proyecto de dicha envergadura la previsión de plazos resulta complicada. Toda esa gestión culmina en diciembre con la aprobación por el Pleno de la Determinación de la forma de prestación del Servicio Público de aparcamiento y aprobación de los Pliegos de condiciones para la concesión demanial y la autorización de uso temporal de plazas de garaje.

2.**NOLAKOA DA PLANIFIKATUTAKO ETA OHIKO JARDUERAREN BALORAZIOA?**

Bai Kontratazioko bai Ondareko proiektuak, ahal zen neurrian, epean egindako, eta, beraz, positiboki baloratu dira. Kontratazioari dagokionez, oso gai bizia da, eta etengabe eguneratzen da; beraz, prozedurak etengabe berrikusi eta egunera behar dira, kontratuak modu egokian ez ezik, modu eraginkorragoan izapidetu ahal izateko.

¿CÓMO SE VALORAN LAS ACTIVIDADES HABITUALES Y LAS PLANIFICADAS?

Los proyectos tanto de Contratación como de Patrimonio, se realizaron en la medida de lo posible, en plazo, por lo que se valoran positivamente. En el caso de Contratación, cabe destacar que se trata de una materia muy viva y la misma se actualiza de manera continuada, por lo que resulta necesaria una revisión y actualización constante de los procedimientos, a fin de poder tramitar los contratos no solo de manera adecuada, sino de manera más eficiente.

3.**PLANGINTZATIK KANPO SORTU ZIREN PROIEKTUAK NOLA GAUZATU ZIREN?**

2023an ez zen proiekturik egin urteko plangintzatik kanpo.

¿CÓMO SE VALORAN LAS ACTIVIDADES NO PLANIFICADAS LLEVADAS A CABO?

En 2023 no se realizaron proyectos fuera de la planificación anual.



1.

NOLA GAUZATU ZUEN DEPARTAMENTUAK 2023KO PLANGINTZA?

Idazkaritzako jarduna, oro har, urteko plangintzaren baitan gauzatu zen. Nabarmenzekoak da departamentuko proiektuen artean, Udaleko Erregelamendu Organikoaren berriskusketari dagokiona, nahiz eta 2023. urtea, Idazkaritzan urte mugitua izanik, ez zen bere amaierara iritsi. Era berean, aipagarri dugu 2023. urtean, udal mailan, legegintzaldi berria hasi zela eta beraz, gure departamentua, oro har, korporazio eraketa berriaren lanketan murgilduta egon da.

Gainerako departamentuekin partekatzen diren proiekturek ere pisu nabariadute gure departamentuan, batik bat, administrazio elektronikoari edo datu babesari lotutakoak. Pausu nabariak eman dira zentzu honetan ere.

¿CÓMO IMPLEMENTÓ EL DEPARTAMENTO LA PLANIFICACIÓN DE 2023?

La actuación en la Secretaría se llevó a cabo, en general, en el marco de la planificación anual. Cabe destacar entre los proyectos del departamento, el correspondiente a la revisión del Reglamento Orgánico del Ayuntamiento, aunque el año 2023, con un año móvil en la Secretaría, no llegó a finalizarse. Asimismo, cabe destacar que en el año 2023, a nivel municipal, se inició la nueva legislatura, por lo que nuestro departamento ha estado inmerso en configuración de la nueva corporación.

Los proyectos compartidos con el resto de departamentos también tienen un peso relevante en nuestro departamento, especialmente los relacionados con la administración electrónica o la protección de datos. También se han dado pasos notables en este sentido.



2.

**NOLAKOA DA PLANIFIKATUTAKO ETA
OHIKO JARDUERAREN BALORAZIOA?**

